**ALKATETZAREN PROPOSAMENA – ANTZERKI JARDUNALDIEN ZERBITZUA EMATEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK.**

**PROPUESTA DE ALCALDIA – PRECIOS PÚBLICOS POR PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE JORNADAS DE TEATRO.**

Eibarko Antzerki Jardunaldiak hiriko kultur ekitaldi garrantzitsuenetako bat dira, arte eszenikoen esparruan. Berrogeita bost edizio bete ditu, eta hogeita hamazazpigarren ediziotik, 2013. urtekotik, Eibarko Udalak antolatzen ditu zuzenean.

Las Jornadas de Teatro de Eibar son unos de los acontecimientos culturales más importes de la ciudad en el ámbito de las artes escénicas. Cuenta con cuarenta y cinco ediciones y desde la edición trigésimo séptima, correspondiente a la del año 2013, las organiza de forma directa el Ayuntamiento de Eibar.

Zerbitzuak emateagatik edo udal-jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzak kultur jarduera honetako sarreren prezioak jasotzen ditu. Hainbat urte pasatu dira eta prezio publiko horiek aldatu beharra dago. 2021. urtean, honako hauek izan dira prezio publikoak:

La ordenanza reguladora de los precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades municipales contempla los precios de las entradas de esta actividad cultural. Después de varios años hace falta realizar una modificación de los precios públicos de las mismas. En el año 2021 dichos precios públicos han sido los siguientes:

*"Antzerki Jardunaldietarako sarreren kalkulua egiteko, kontuan hartuko dira ordainsariak eta/edo ikuskizuna zein sailetakoa den.*

| *ANTZEZLANAREN MODALITATEA ETA ORDAINSARIA* | *SARREREN PREZIOA* |
|---|---|
| *7.999 eurorainokoak* | *11,00 €* |
| *8.000 eurotik gorakoak* | *15,00 €* |
| *Profesionalak ez diren konpainien antzezlanak Umeentzako ikuskizunak, ohiko programazioan izaten direnak* | *5,00 €* |

*"El cálculo de las entradas para las Jornadas de Teatro se realizará, teniendo en cuenta el caché y/o la sección en la que participe el espectáculo.*

| *MODALIDAD DE OBRA Y CACHÉ* | *PRECIO DE LAS ENTRADAS* |
|---|---|
| *Cachés hasta 7.999 €* | *11,00 €* |
| *Cachés superiores a 8.000 €* | *15,00 €* |
| *Obras de compañías no profesionales Espectáculos infantiles los mismos de programación ordinaria* | *5,00 €* |

Kultur zuzendariak egindako azterlan ekonomikoak, azken lau urteetako batez bestekoen gainekoak, 180.000 €-ko gastuak eta 4.450 ikusleko bertaratze-

El estudio económico realizado por el Director de Cultura, realizado sobre medias de los últimos cuatro años, prevé unos gastos de 180.000 € y una previsión

aurreikuspena aurreikusten ditu. Azterlan horretan oinarrituta, sarreren prezioak proposatzen dira, zerbitzuak emateagatiko edo udal-jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzan sartzeko eta aldatzeko.

de asistencia de 4.450 espectadores. Sobre la base de dicho estudio se proponen los precios de las entradas para inclusión y modificación en la ordenanza reguladora de los precios Públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades municipales.

Era berean, prezio publikotzat hartzeko bi baldintzak betetzen dira, hala nola interesdunaren borondatearen benetako adierazpen eraginkorra izatea eta zerbitzu edo jarduera hori egitatezko edo zuzenbidezko monopolio-egoeran dauden zuzenbide publikoko erakundeek ez ematea. Antzoki emanaldietara joatea borondatezkoa da interesdunaren aldetik, eta nahi duen edozein pribatuk antzerki emanaldiak programatu ditzake.

El establecimiento de los precios de las entradas cumple con las dos condiciones para ser considerados como precios públicos, como son que sea una manifestación real y efectiva de voluntad por parte del interesado y que dicho servicio o actividad no se preste por los entes de Derecho público en situación de monopolio de hecho o de derecho. Asistir al teatro es un acto voluntario por parte de la persona interesada y cualquier privado que lo deseará podría programar representaciones de teatro.

Prezio publikoen **zenbatekoa** ezartzeko, Estatuko eta Tokiko Tasen Lege Araubidea aldatzeko eta Ondare Prestazio Publikoak Berrantolatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legeak, 25. artikuluan (zenbatekoari buruzkoa), 2. puntuan ezartzen duenez, hala aholkatzen duten arrazoi sozialak, ongintzakoak, kulturalak edo interes publikokoak daudenean, prezio publikoak ezarri ahal izango dira, aurrez aurreikusitako aurrekontu-parametroetatik beherako prezioan. Antzerki Jardunaldietako programazioak arrazoi kulturala du eta interes publikokoa da. Gainera, Eibarko Udalak Antzerki Jardunaldietako programazio hori gauzatzeko aurrekontu-aurreikuspen egokia du.

Para el establecimiento de la cuantía de los precios públicos, la Ley Ley 25/1998, de 13 de julio, de modificación del Régimen Legal de las Tasas Estatales y Locales y de Reordenación de las Prestaciones Patrimoniales de Carácter Público, en su artículo 25 sobre **cuantía**, establece en su punto 2 que cuando existan razones sociales, benéficas, culturales o de interés público que así lo aconsejen, podrán señalarse precios públicos que resulten inferiores a los parámetros previstos en el apartado anterior, previa adopción de las previsiones presupuestarias oportunas para la cobertura de la parte del precio subvencionada. La programación de las Jornadas de Teatro es una razón cultural y de interés público. Además, el Ayuntamiento de Eibar cuenta con la oportuna previsión presupuestaria para la ejecución de dichas Jornadas de Teatro programación de cine comercial.

Hori horrela izanik, beharrezkoa litzateke Zerbitzuak eskaini edo Udal jarduerak burutzeagatik ezarritako prezio publikoak arautzen dituen egungo ordenantza

Siendo esto así, sería necesario modificar la Ordenanza reguladora de los Precios Públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades municipales

aldatzea, Antzerki Jardunaldiei dagokienez, prezio publikoen xedearen deskripzioa errealitatera ahalik eta gehien egokitzeko eta, hartara, proportzionaltasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioa betetzeko.

en lo referente al apartado de Jornadas de Teatro para que la descripción del objeto de los precios públicos se acomode lo máximo posible a la realidad y cumplir así con el principio de proporcionalidad y de seguridad jurídica.

Proposamen hau eta behin betiko onespena jasoko duen araudia Eibarko Udalaren webgunean kaleratuko dira; era horretan, zerbitzu horren erabiltzaileek Antzerki Jardunaldietako prezioetan sarbide erraza, unibertsala eta eguneratua izan dezaten. Hori guztia gardentasun-printzipioaren baitan.

Esta propuesta, así como la normativa que definitivamente se apruebe, serán publicadas en la página web del Ayuntamiento de Eibar para posibilitar el acceso sencillo, universal y actualizado a los precios de las entradas de Jornadas de Teatro a las personas usuarios de dicho servicio. Todo ello en base al principio de transparencia.

Efizientziaren printzipioak dioena betez, araudian prezio publiko hauek txertatxeak baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatu nahi du.

En aplicación del principio de eficiencia, la inclusión de estos precios públicos intenta racionalizar la gestión de los recursos públicos.

Azkenik, adierazi behar da planteatutako prezio publikoak sartzeak ez diela aurrekontu- eta finantza-egonkortasunari eragingo, ez baitute diru-sarrera gutxiago eragingo.

Por último, indicar que la inclusión de precios públicos planteada no va a afectar a la estabilidad presupuestaria ni financiera dado que no va a suponer un menor ingreso.

Esandako guztiagatik, HAUXE PROPOSATZEN DUT:

Por todo lo anterior, PROPONGO:

Zerbitzuak emateagatik edo udal-jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzako prezioen atalean Antzerki Jardunaldiei dagokien atala ALDATZEA. Honela idatzita geratuko litzateke:

MODIFICAR el apartado correspondiente a Jornadas de Teatro de la Ordenanza reguladora de los precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades municipales que quedaría redactado de la siguiente manera:

**EIBARKO ANTZERKI JARDUNALDIAK**
Antzerki Jardunaldietarako sarreren kalkulua egiteko, kontuan hartuko dira ordainsariak eta/edo ikuskizuna zein sailetakoa den.

| ANTZEZLANAREN MODALITATEA ETA ORDAINSARIA | SARREREN PREZIOA |
|---|---|
| 7.999 eurorainokoak | 12,00 € |
| 8.000 eta 12.000 euro bitartekoak | 15,00 € |

**JORNADAS DE TEATRO DE EIBAR**
El cálculo de las entradas para las Jornadas de Teatro se realizará, teniendo en cuenta el caché y/o la sección en la que participe el espectáculo.

| MODALIDAD DE OBRA Y CACHÉ | PRECIO DE LAS ENTRADAS |
|---|---|
| Cachés hasta 7.999 € | 12,00 € |
| Cachés entre 8.000 € y 12.000€ | 15,00 € |


Untzaga plaza, 1 • 20600 EIBAR Gipuzkoa • Tlf. 943 70 84 00 - Faxa: 943 70 84 20 • e-mail: pegora@eibar.eus • www.eibar.eus

| | | | |
|---|---|---|---|
| 12.000 k eurotik gorakoak | 20,00 € | Cachés superiores a 12.000€ | 20,00 € |
| Profesionalak ez diren konpainien antzezlanak<br>Umeentzako ikuskizunak, ohiko programazioan izaten direnak. | 5,00 € | Obras de compañías no profesionales<br>Espectáculos infantiles los mismos de programación ordinaria | 5,00 € |

Eibarren, 2021eko uztailaren 28an

Alkatea
Jon Iraola Iriondo

En Eibar a 28 de julio de 2021

El Alcalde
Jon Iraola Iriondo

EIBARKO ALKATETZA
ALCALDIA DE EIBAR